dictamen de de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

***Lehena*.- *BEHIN BETIKO ONARTZEA HAPOko AIU 21 "Zarkumendegi"-ren urbanizazio-proiektua eta desjabetzeen eranskina, SALABERRIA INGENIERITZA S.L. enpresako ingeniariek 2022ko martxoan idatzia.*

***Primero*.-** *APROBAR DEFINITIVAMENTE el Proyecto de Urbanización y el Anexo de expropiaciones del AIU 21 "Zarkumendegi" del PGOU, redactado por los ingenieros de SALABERRIA INGENIERITZA S.L. en marzo del año 2022.*

***Bigarrena*.-** *Astigarraga Lantzen SAri JAKINARAZTEA obren hasieraren berri eman beharko diola Astigarragako Udalari, eta baimena eskatu Añarbeko Urak erakundeari eta Uraren Euskal Agentziari, eta 2022ko urtarrilaren 31ko eta 2021eko urriaren 13ko txostenetan, hurrenez hurren, eskatutako informazioa bidali beharko duela.*

***Segundo*.-** *INFORMAR a Astigarraga Lantzen S.A que deberá comunicar al Ayuntamiento de Astigarraga el inicio de las obras, y solicitar autorización tanto a Aguas del Añarbe como a la Agencia Vasca del Agua, remitiendo la información exigida en sus informes de fecha 31 enero de 2022 y de fecha 13 de octubre de 2021, respectivamente.*

***Hirugarrena*.-** *Astigarraga Lantzen SAri JAKINARAZTEA proiektua hasteko gehieneko epea lau urtekoa dela, eta obrak 2022ko urtarrilaren 28ko ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak betez gauzatuko direla.*

***Tercero*.-** *COMUNICAR A Astigarraga Lantzen S.A que el plazo máximo para el inicio de ejecución del proyecto es de cuatro años, y que las obras se ejecutaran dando cumplimiento a las medidas protectoras y correctoras establecidas en la Declaración de Impacto Ambiental de fecha 28 de enero de 2022.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

**14.-Añarbeko Uren proposamena saneamenduko baja- eta alta-sareak mugatzeko.**

**14.-Propuesta de Aguas del Añarbe para el deslinde de la redes de baja y de alta de saneamiento.**

Alkateak Obrak eta Zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Obras y Servicios:

*Añarbeko Urak Mankomunitateak hondakin-uren eta euri-uren saneamendu zerbitzua ematen du udal sareekin lotzen diren lekuetaraino, hau da, Udalen behe sareetaraino.*

*La Mancomunidad de Aguas del Añarbe presta un servicio de saneamiento de aguas residuales y pluviales hasta los puntos de conexión con las redes municipales, es decir, hasta las redes bajas de los Ayuntamientos.*

*Praktikan, instalazio batzuen titulartasuna ez dago argi eta Mankomunitateak 2021eko maiatzaren 7an egindako bilkuran onartu zuen Mankomunitatearen goi-saneamenduko sarearen eta Mankomunitatea osatzen duten 10 udalen behe saneamenduaren arteko mugaketa proposamena.*

*En la práctica, la titularidad de algunas instalaciones no está clara y la Mancomunidad aprobó en sesión celebrada el 7 de mayo de 2021 la propuesta de delimitación entre la red de saneamiento superior de la Mancomunidad y el saneamiento bajo de los 10 ayuntamientos que la integran.*

*Astigarragako udalaren obrak eta zerbitzuen saileko teknikariek egindako txostenaren baitan, Astigarragako kasuan, Añarbeko Urak S.A.k duen goi-saneamendu sarea eta udalarena den behe*

*Dentro del informe elaborado por los técnicos del departamento de obras y servicios del Ayuntamiento de Astigarraga, en el caso de Astigarraga, la red de saneamiento superior y la red de saneamiento bajo*

*saneamendu sareak mugarrituak geratu dira azken urtean egin den lanketarekin, eta udalak burutu berri duen udal saneamendu sarearen planoan jasota dago hodi bakoitzaren titulartasuna. Plano honek bat egiten du Añarbeko Urak S.A.k aurkeztutako proposamenarekin. Azkenik dio udalak, mantentzen duen saneamendu sareari gehitu zaizkion hodiak ez dutela inolako eragozpenik sortzen zerbitzu aldetik, eta udala gai dela egun dituen baliabideekin hodi hauek mantentzeko.*

*municipal de Urak del Añarbe S.A. han quedado acotadas con la investigación realizada en el último año y la titularidad de cada tubería está recogida en el plano de la red de saneamiento municipal recientemente ejecutada por el ayuntamiento. Este plano se corresponde con la propuesta presentada por Aguas del Añarbe S.A. Por último, el Ayuntamiento dice que las tuberías que se han añadido a la red de saneamiento que mantiene no suponen ningún inconveniente desde el punto de vista de servicio y que el Ayuntamiento es capaz de mantener estas tuberías con los recursos de que dispone en la actualidad.*

*Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalaren Osoko Bilkurak honako akordioa hartu du:*

*Por todo lo mencionado anteriormente, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarragaha tomado el siguiente acuerdo:*

***Lehena**.- Añarbeko Urak S.A.k onartutako goi-saneamenduko sarearen eta Astigarragako udalarena den behe sanemenduaren arteko mugaketa proposamena ontzat hartzea.*

***Bigarrena**.- Ebazpen honetatik eratorri daitekeen edozein agiri sinatzeko alkatea ahalmentzea.*

***Primero**.- Estimar la propuesta de deslinde entre la red de saneamiento superior aprobada por Aguas del Añarbe S.A. y la red de saneamiento bajo municipal de Astigarraga.*

***Segundo**.- Facultar al Alcalde para la firma de cualquier documento se derive de la presente resolución.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

## 15.-Kale izendegiaren aldaketa.

Alkateak Obrak eta Zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena**.- Lehen Oialume bidea 1bis, 1, 3, eta 5 atariak orain Grabelin kalea 1bis, 1, 3 eta 5 bezala zenbakitzea.*

***Bigarrena**.- Oialume bidea 1bis, 1, 3 eta 5 zenbakiak kale izendegitik ezabatzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da**.**

## 15.-Modificación del callejero municipal.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Obras y Servicios:

***Primero.-** Los actuales portales de Oialume bidea 1bis, 1, 3 y 5, pasar a denominarlos como Grabelin kalea 1bis, 1, 3 y 5.*

***Segundo.-** Anular del callejero municipal los portales de Oialume bidea 1bis, 1, 3 y 5.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

## 16.-Ukrainako gerrrari buruzko adierazpen instituzionala

Alkateak azaldu du gaia bozeramaile batzordean aztertu dela eta hiru taldeen babesa duela. Jarraian, testu hau aukeztu du onartua izan dadin:

## 16.-Declaración institucional sobre la guerra en Ucrania

El alcalde comenta que el tema se ha tratado en la Junta de Portavoces y que cuenta con el apoyo de los tres grupos. A continuación presenta el siguiente texto para su aprobación:

***UKRAINAKO GERRA***

*Otsailaren 24an, Errusiako presidente Vladimir Putinek Ukrainaren kontrako operazio militar bati ekiteko agindu zuen. Harrezkero, Ukrainako hainbat herri eta hiri errusiar tropen erasoa jasaten ari dira, egoera dramatikoak eraginez ukrainar herritarren artean, besteak beste, errefuxiatuak Europan hamarkadetan izan duen exodorik handiena.*

*Horren aurrean, honako hau adierazi nahi du Astigarragako Udalbatzak:*

*1.Astigarragako Udalak Ukrainaren kontrako eraso militarra salatu eta indar militarrak Ukrainako lurretatik erretiratzeko eskatzen dio Errusiari.*

*2.Astigarragako Udalak elkartasun mezu bat helarazten dio Ukrainako herriari eta bereziki Astigarragan bizi diren ukrainarrei eta beren familiei.*

*3.Astigarragako Udalak erretorika eta eskalada belizista behingoz amaitzea eta gatazka konpontzeko beharrezko elkarrizketak eta bide diplomatikoak bultzatzeko eskatzen du, ESLAren (Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea) eta NBEren bitartekaritzarekin. Halaber, babesa ematen die Europar Batasunak eta Estatu kideek norabide horretan eman dituzten urratsei.*

*4,Astigarragako Udalak, harrera herri gisa, konpromisoa hartzen du errefuxiatuei laguntzen jarraitzeko eta sortutako exodoa ikusita, batik bat ukrainarrei laguntzeko, laguntza humanitarioa emanez eta errefuxiatuak Astigarragan hartuz.*

*5.Astigarragako Udalak gerra egoera oro arbuiatzen du, izan Ukrainan, Yemenen, Palestinan, Somalian edo beste edozein lurralde, nazio edota herrietan.*

Nerea zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bere taldeak eta EHBilduk testu bana aurkeztu zutela, eta, bigarrenean alderdi batzuk sartu ondoren, testu bateratua lortu dela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpen instituzionala **aho batez onartu** da.

***GUERRA DE UCRANIA***

*El pasado 24 de febrero, el presidente ruso Vladimir Putin ordeno una operación militar contra Ucrania. Durante estos días varios pueblos y ciudades ucranianas han sufrido el asedio de las tropas rusas, generando situaciones dramáticas entre la población ucraniana, entre otras, el mayor éxodo de personas refugiadas en Europa en décadas.*

*El pleno del Ayuntamiento de Astigarraga ante esta situación quiere expresar lo siguiente:*

*1.El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia el ataque militar de Rusia e insta a su cese inmediato y a la retirada de sus fuerzas militares del territorio ucraniano.*

*2.El Ayuntamiento de Astigarraga muestra su solidaridad con el pueblo ucraniano y de forma especial con aquellas personas ucranianas que residen en Astigarraga y sus familias.*

*3.El Ayuntamiento de Astigarraga solicita acabar de una vez con la retórica y escalada belicista e insta a impulsar las conversaciones necesarias y las vías diplomáticas para resolver el conflicto con la intermediación de la OSCE (Organización para la Seguridad y la Cooperación en Europa) y la ONU. Asimismo, muestra su apoyo a las iniciativas adoptadas por la Unión Europea y sus Estados Miembros en esa dirección.*

*4.El Ayuntamiento de Astigarraga actuando como municipio acogida, se compromete a continuar ayudando a las personas refugiadas, y ante el éxodo generado, especialmente a las ucranianas, prestando ayuda humanitaria y su acogimiento.*

*5.El Ayuntamiento de Astigarraga muestra su repulsa ante toda guerra, sea en Ucrania, Yemen, Palestina, Somalia o en otro cualquier territorio, nación y/o pueblo.*

La concejala Nerea toma la palabra para señalar que su grupo y EHBildu presentaron un texto cada, y que tras incluir algunos aspectos en el segundo, se ha conseguido un texto unitario.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la declaración institucional por **unanimidad**.

## 17.Mendebaldeko Saharako gatazkaren inguruko mozioa

Alkateak azaldu du gaia bozeramaile batzordean aztertu dela adierazi ondoren, mozio hau aukeztu du onartua izan dadin

***Zioa***

*Espainiako Gobernuak errotik aldatu du bere jarrera Mendebaldeko Saharako gatazkari dagokionez, Nazio Batuen ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbidea bera ere urratuz.*

*Komunikabide batzuen arabera, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidenteak gutun bat bidali dio Mohamed VI erregeari, Marokok 2007an Sahararako egin zuen autonomia erregimenaren proposamena gatazka konpontzeko proposamenik serioena, errealistena eta sinesgarriena dela esanez. Jose Manuel Albares, Atzerri, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroak berak informazio hori baieztatu du.*

*Abdulah Arabi, Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariak adierazi duenez, Espainiako Gobernuak urteak daramatza Marokori etengabe atsegin ematen saiatzen, bere ustez deskolonizatzeke dagoen lurralde bateko potentzia administratzaile gisa ez dagokion anbiguotasunarekin jokatuz. Arabik berretsi du erreferenduma egin behar dela saharar herriak erabaki dezan.*

*Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalaren Osoko Bilkurak:*

*1. Bere kezka adierazi nahi du Espainiako Gobernuak babesa ematen diolako Marokoko Erresumak Sahararen autonomiari buruz egindako proposamenari.*

*2. Espainiako Estatuak lotura historiko eta afektiboa duela Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan, eta, horregatik, Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nazio Batuen Erakundean, EBn eta gainerako nazioarteko erakundeetan modu aktiboan lagundu eta jardun dezala gatazkaren konponbidearen alde, Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen arabera beti ere. Ildo horretan, Gobernuari eskatzen dio babestu ditzala Staffan de Mistura NBeko ordezkari aldeen arteko negoziazio prozesu politikoari berriro ekiteko egindako ahaleginak eskatzen dio.*

*3.. Ezinbestekoa dela konponbide politiko justu,*

## 17.- Moción sobre el conflicto en el Sahara Occidental

El alcalde, tras manifestar que el asunto ha sido estudiado en la junta de portavoces, presenta – para su aprobación – la siguiente moción

***Justificación***

*El Gobierno español ha modificado radicalmentesu posición en relación al conflicto del Sáhara Occidental, contraviniendo las resoluciones de Naciones Unidas y el propio Derecho Internacional.*

*Según difversos medios de comunicación, el Presidente del Gobierno español, Pedro Sanchez, ha enviado una carta al rey Mohamed VI en la que asegura que la propuesta de un régimen de autonomía para el Sáhara que Marruecos hizo en 2007 es la propuesta "más seria, realista y creíble" para la resolución del conflicto. Esta información ha sido confirmada por el propio Ministro de Exteriores, Unión Europea y Cooperación, José Manuel Albares.*

*El delegado del Polisario en el Estado español, Abdulah Arabi, ha afirmado que el Gobierno español lleva años "intentando agradar constantemente a Marruecos", jugando con una "ambig üedad" que, en su opinión, no le corresponde como "potencia administradora" de un territorio pendiente de descolonización. Arabi reitera la necesidad de celebrar un referéndum para que decida el pueblo saharaui.*

*Por todo lo mencionado anteriormente, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga:*

*1. Muestra su preocupación por el apoyo del Gobierno español a la propuesta del Reino de Marruecos sobre la autonomía del Sáhara.*

*2. Reconoce que el Estado español tiene una vinculación histórica y afectiva en el conflicto político del Sahara Occidental, por lo que insta al Gobierno español a apoyar y facilitar activamente en la ONU, la UE y en el resto de Organizaciones Internacionales, una solución política conforme al Derecho Internacional y a las resoluciones de la ONU. En este sentido, insta al gobierno a apoyar los esfuerzos del enviado Personal para el Sahara, Staffan de Mistura, destinadas a reanudar el proceso político de negociación entre las partes del conflicto.*

*iraunkor eta elkarrekiko onargarri batetara iristea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta asmoen esparruan, Nazio Batuen ebazpenekin bat etorriz, alde guztien erantzukizuna eskatuz, ikuspegi aldeaniztun eta eraikitzailea duen konponbidea helburu.*

*3. Subraya que resulta imprescindible una solución política justa, duradera y mutuamente aceptable, de conformidad con las resoluciones de Naciones Unidas, en el marco de los principios y propósitos de la Carta de Naciones Unidas, apelando a la responsabilidad de todas las partes, para la búsqueda de una sol ución con un enfoque multilateral y constructivo.*

*4.- Mendebaldeko Sahararen auziari irtenbide politikoa ematea funtsezkoa dela adierazten du, Magrebeko herrialde en arteko eskualde lankidetzarako eta eskualdearen egonkortasuna, segurtasuna eta oparotasuna bermatzeko.*

*4.- Señala que una solución política a la cuestión del Sáhara Occidental es fundamental para la cooperación regional entre los países del Magreb y la estabilidad, la seguridad y la prosperidad de la región.*

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta esan du, kosta egin arren, kontrako botoa eman behar duela, alderdi batean militatzen denean ondorio guztiekin izaten baita.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que aunque le cuesta, tiene que votar en contra, dado que cuando se milita en un partido es con todas las consecuencias.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta esan du testu bat aurkeztu izan balute desberdina izango litzatekeela, baina ideia orokorrarekin ados daudenez, aldeko botoa emango dutela.

La concejala Nerea toma la palabra y comenta que de haber presentado ellos un texto, el mismo sería diferente, pero que al estar de acuerdo con la idea general van a votar a favor.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa **onartu** da aldeko 12 botoekin (*Astigarragako EHBildu eta Astigarragako EAJ-PNV)* eta kontrako boto 1ekin *(Udal talde Sozialista*).

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la moción, con 12 votos a favor (*Astigarragako EHBildu y EAJ-PNV de Astigarraga* ) y 1 voto en contra (*Grupo Municipal Socialista*) .

**18.-Gipuzkoako garraio publikoaren tarifei eta mugi sistemari laguntzeari buruzko mozioa.**

**18.-Moción sobre las tarifas en el transporte público en Gipuzkoa y apoyo al sistema Mugi.**

Alkateak azaldu du Udal Talde Sozialistak eta EHBIlduk mozio bana aurkeztu zutela, baina bi taldeek testu bateratu bat adostu dutela, eta EAJ taldea ere babesten duenez, bozeramaile batzordean erabaki dela adierazten instituzionaltzat aurkeztea. Ondoren testu hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde ha explicado que el Grupo Municipal Socialista y EHBIldu presentaron dos mociones, pero que ambos grupos han consensuado un texto unitario y, dado que el grupo PNV también lo apoya, en la Junta de portavoces se ha acordado presentarlo como declaración. A continuación, presenta para su aprobación el siguiente texto:

*MUGI tarifa-sistema Gipuzkoako tarifa-eredua da 2013tik, sortu zen urtetik, eta Gipuzkoako indar politiko gehien-gehienen babesa du, bai eta MUGI sisteman integratuta dauden eta garraio publikoaren arloan eskumenak dituzten erakundeena ere. MUGI tarifa-ereduak gure garraio publikoaren eredua sistema ekologikoa, soziala eta demokratikoa izaten laguntzen du, Gipuzkoako herritar guztien batasun eta kohesio elementua da eta alderdi politikoen artean inoiz ez bezalako adostasuna du, Gipuzkoako herritarren mugikortasunerako oinarrizko eskubidea*

*El sistema tarifario MUGI es el modelo tarifario de GIpuzkoa desde el año 2013, en que se constituye, y cuenta con el apoyo de la inmensa mayoría de las fuerzas políticas guipuzcoanas, así como de las instituciones competentes en materia de transporte público integradas en el sistema MUGI. El modelo tarifario de MUGI, que hace de nuestro modelo de transporte público, un sistema ecológico, social y democrático, es un elemento de unión y cohesión de toda la ciudadanía guipuzcoana, y de consenso sin precedente entre los partidos políticos, como modelo*

*bermatzen duen zerbitzu publikoaren eredu gisa.*

*de servicio público que garantiza el derecho fundamental de movilidad de la ciudadanía guipuzcoana.*

*MUGI tarifa-eredu hau 2013an abian jarritako sistema bateratu bat da, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak kudeatzen du eta txartel bakar integrala dela esan daitekeen Euskadiko, Espainiako eta Europako tarifa-eredu bakarra da; izan ere, 2013tik Gipuzkoako garraio-operadore publiko guztiak daude integratuta garraio publikoa planifikatzeko eta koordinatzeko GGLA organo bakar horretan, eta gure tarifa-ereduaren bereizgarririk ahaltsuena ere jarri zuen abian: garraiorako gure MUGI TXARTELA ezartzen duen eta gure tarifa-eredua ahalduntzen duen tarifak integratzeko sistema.*

*Este modelo tarifario de MUGI es un sistema unificado que se puso en marcha en el año 2013, gestionado por la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa, y se constituye en el único modelo tarifario de Euskadi, España y Europa del que puede decirse es un billete único integral, puesto que – desde ese año 2013 todos los operadores públicos de transporte de Gipuzkoa se integraron en ese único órgano, la ATTG, de planificación y coordinación del transporte público - poniendo en marcha también el distintivo más poderoso de nuestro modelo tarifario: el sistema de integración tarifario que implanta nuestra tarjeta de transporte la TARJETA MUGI, y empodera nuestro modelo de tarifas.*

*Eta guztiak esaten dugunean, tarifa-eredu bakarrarekin konpromisoa hartuta duten garraiobide guztiak direlako esaten dugu, inor baztertu gabe eta salbuespenik gabe: errepideko garraio publikoaren zerbitzu guztiak, bai hiriartekoak (Lurraldebus eta ibilbide luzekoak), bai hiri barrukoak (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosa), bai eta tren-garraio publikoak ere (Euskotren eta Renfe aldiriak).*

*Cuando decimos todos, es porque son todos, sin exclusiones ni excepciones, los medios de transporte que se comprometen con un único modelo tarifario: todos los servicios de transporte público por carretera, tanto interurbanos (Lurraldebus y largo recorrido), como urbanos (Donostia, Irún, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate-Mondragón, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati y Tolosa) y también los medios de transporte público ferroviarios (Euskotren y Renfe Cercanías).*

*Gipuzkoarrok txartel bakarrarekin bidaiatzen dugu Gipuzkoako garraiobide guztietan. Baina gure tarifa-ereduak ez duenez mugarik izan nahi, Araba osoan ere erabil daiteke balioko ordainketa-modu gisa. Bizkaira laster iritsiko gara, irailean BILBOKO METROAN ezarriko baita, Euskadin erabiltzaile-kopururik handiena duen garraio publikoko azpiegitura izanik.*

*Los y las guipuzcoanos viajamos en todos los medios de transporte con una única tarjeta en Gipuzkoa. Pero como nuestro modelo tarifario no quiere tener fronteras, también puede usarse como medio de pago válido en todo Alava, y próximamente, llegamos hasta Bizkaia, donde en septiembre se implantará en METRO BILBAO, la infraestructura de transporte público con mayor número de persona usuarias de Euskadi.*

*Gipuzkoako tarifa-eredu horren erabilpena hedatu ahal izatearen arrazoia da MUGI erabiltzen duten pertsonen komunitatea Gipuzkoako biztanleen ia % 80ko fidelizaziora iristen dela, eta horren ondorioz MUGI tarifa-ereduak Gipuzkoako mugak gainditu ditu. Horrela, fidelizazio eta erabilpen horri esker, eredua eta txartela Euskadin gehien erabiltzen direnak izango dira aurten Bilboko Metrora iristean, eta berez gure herrialdeko txartel bakar garrantzitsuena da, eta erreferentea hemen zain kanpoan.*

*Esta expansión de uso del modelo tarifario de Gipuzkoa es posible gracias a que la comunidad de personas usuarias de MUGI llega hasta casi un 80% de fidelización de la población guipuzcoana hace que modelo tarifario de MUGI haya superado la frontera de Gipuzkoa, y su nivel de fidelización y uso provocarán que este modelo y su tarjeta el más usado de toda Euskadi este año con su llegada a Metro Bilbao lo que lo convierte de hecho en el Billete único más importante de nuestro país, referente a nivel local e internacional.*

*MUGI tarifa-ereduak bikain ateratzen du bai elkarreragintasunean bai jasangarritasun sozialean, eta horren ondorioz MUGI –tarifen integrazioari esker– eredu sozial eta bidezkoa ez ezik, ekologikoa*

*El hecho de que el tarifario de MUGI no sólo saque sobresaliente en interoperabilidad, sino también en sostenibilidad social, hace de MUGI el único modelo tarifario que - gracias a la integración de tarifas -*

*ere izateko ezaugarri guztiak dituen tarifa-eredu bakarra da.*

*MUGIren tarifa-ereduarekin*

*1. Erabiltzen duzuna bakarrik ordaintzen duzu.*
*2. Zenbat eta gehiago erabili, gutxiago ordaintzen duzu.*
*3. Eta, gainera, ekitatea bermatzen duzu gizarte-babesa izateko premiarik handiena duten kolektiboei egiten zaizkien hobariekin: adinekoei, gazteei, langabetuei, baliabide gutxi dituzten pertsonei edo gaitasun bereziak dituztenei.*

*MUGI tarifa-ereduarekin nahi duzun lekura eta nahi duzun bezala bidaiatu dezakezu, non bizi zaren eta zenbat baliabide dituzun kontuan hartu gabe. MUGI tarifa-ereduak ez ditu gizarteaurrerapenetik kanpora uzten baliabide gutxi dituzten pertsonak; ez ditu kanpoan uzten autorik ez dutenak edo autoaren gasolina ordaindu ezin dutenak, euren eskubideak baldintza eta aukera berbetan edonon gozatu ahal izateko mugitzerik ez dutenak.*

*COVID 19ak eragindako pandemia osteko krisi betean, gutxien duten pertsonei sufrimendua eragiten dien tentsio-giro sozial eta ekonomiko honetan, eta gobernuen ekonomia eta, batez ere, guri dagokigunez, Gipuzkoako gizon-emakumeen eta familien ekonomia, hankaz gora jartzen ari den gerra-agertoki honetan, MUGI bezalako sistemak baliarazi nahi ditugu, tarifa-eredu merkea, ekonomikoa eta soziala proposatzen baitute eta horri esker gipuzkoar guztiok mugitu ahal baikaitezke lurraldean eta Euskadin.*

*Uste dugu, batetik, MUGI tarifa-eredua babestu behar dela, garraio publikoaren erabiltzaileei lasaitasuna emanez. Eta, bestetik, uste dugu iritsi dela MUGI SISTEMAREN ekitatean eta justizian oraindik ere gehiago sakontzeko unea, Gipuzkoako familien ekonomia ito edo zaildu dezaketen une latzen aurrean.*

*Horregatik, tarifa oraindik ere sozialagoak eta, horrenbestez, progresiboagoak egitea aldezten dugu; eta uste dugu 2022an, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan MUGIrako tarifak eztabaidatzen eta erabakitzen direnean, tarifa-eredu horretan beste urrats bat emateko unea izango dela.*

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, Astigarragako Udalbatzak mozio hau onartu du:*

*tiene todos los caracteres para ser un modelo social y justo, además de ecológico.*

*Con el modelo tarifario de MUGI:*

*1. Sólo pagas por lo que usas.*
*2. Cuanto más lo usas, menos pagas*
*3. Y además garantizas la equidad con grandes bonificaciones a los colectivos con mayor necesidad de protección social: las personas mayores, jóvenes, desempleadas, personas con menos recursos o con capacidades especiales.*

*Con el modelo tarifario MUGI viajas donde quieras, como quieras, con independencia de lugar de residencia y de cuantos recursos tengas. MUGI es el modelo tarifario que no deja a las personas que menos tienen excluidas del progreso social; que no deja a las que no tienen coche o que no pueden pagar la gasolina del coche en su casa, sin posibilidad de moverse para acceder a todos los lugares donde disfrutar de tus derechos en igualdad de condiciones y oportunidades.*

*En plena crisis post pandemia por la COVID 19, con la tensión social y económica haciendo sufrir a las personas que menos tienen, y con un escenario de guerra que esta convulsionando la economía de gobiernos, pero sobre todo de mujeres, hombres y familias de Gipuzkoa, queremos poner en valor sistemas de este tipo, como el sistema MUGI, que proponen una tarificación barata, económica y social, gracias a la cual nos permiten a todos y todas los guipuzcoanos movernos por el territorio y por Euskadi.*

*No solo consideramos que hay que proteger el modelo tarifario de MUGI, dando tranquilidad a las personas usuarias del transporte público. Sino que, además, entendemos que ha llegado el momento de profundizar aún más en la equidad y justicia de las tarifas del SISTEMA MUGI ante los momentos difíciles que pueden ahogar o dificultar las economías familiares de guipuzcoanos y guipuzcoanas.*

*Es por ello que defendemos hacer unas tarifas aún más sociales, y, por tanto, más progresivas; y creemos que en este año 2022, cuanto se produzca el debate y decisión de las tarifas para MUGI en la Autoridad del Transportes de Gipuzkoa será el momento de dar un paso más en este modelo tarifario.*

*Por todo lo expuesto anteriormente, el pleno del Ayuntamiento de Astigarraga ha aprobado la*

*siguiente moción.*

*1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari honako neurri hauek aintzat har ditzala eskatzen diogu, tarifak berritzeko unean eztabaidatu eta, hala badagokio, onartuz:*

- *Garraio publikoaren erabiltzaile ohikoenei kostua modu eraginkorrean jaisten laguntzea.*
- *Tarifen balizko jaitsieraren eta horrek izan ditzakeen ondorioen azterketa adostea, eta, hori ikusita, gutxienez hurrengo bi ekitaldietan tarifen prezioei eustea ezartzea, garraio publikoaren erabiltzaileek beren soldatekin aurre egin ez diezaieten energiaren eta erregaiaren igoera eragin duten krisiei eta Gipuzkoako gizarteari eragiten dion inflazio handiari.*
- *MUGIren deskontu-sistemaren aldaketa onartzea, haren progresibitatean eta justizia sozialean sakontzeko, laugarren tarte bat barne; horrek MUGIren erabiltzaileei doakotasun handiagoa emango die MUGI txartelaren erabilera-tarte guztietan.*
- *MUGI sistemaren tarifa-ereduaren gizarte-misioan aurrera egitea, bereziki kalteberak diren kolektibo berriak sartuta.*
- *Astigarragako Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzari eskatzen dio bere garraio-eskaintza zabal dezala, erabiltzaile guztien eskariei erantzuteko behar den beste, bereziki Astigarragako kasuan, gabezia handiko garraio publikoko zerbitzua duelako.*
- *Horrek guztiak Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa-sistemaren kostuak handitzea ekar dezakeela jakinik, Astigarragako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Errepideen Foru Sareko bidesari lotutako zatietan bildutakoaren zati bat itzul dezala, eta martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria aktiba dezala, haren zazpigarren tituluko garraioari buruzko Foru Dekretuaren bidez*

*2. Astigarragako Udalbatzarrak hartutako akordioen berri emango die Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzari eta hura osatzen duten erakunde guztiei.*

*1. Solicitar a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, para su debate y aprobación, en su caso, en el momento de próxima renovación de tarifas las siguientes medidas:*

- *Para ayudar a una bajada efectiva del coste para las y los usuarios más habituales del transporte público*
- *Acordar el estudio de la posible bajada de tarifas, y los efectos que esta pudiera tener, y a la vista del mismo, como mínimo establecer el mantenimiento de los precios de tarifas en los dos próximos ejercicios con el objetivo de imposibilitar en cualquier caso que sean las personas usuarias del transporte público las que afronten con sus sueldos las crisis que han provocado la subida de energía y combustible, y la fuerte inflación que afecta a la sociedad guipuzcoana.*
- *Aprobar la modificación del sistema de descuentos de MUGI, para ahondar en su progresividad y justicia social, incluyendo un cuarto tramo, lo que dará a las personas usuarias de MUGI mayor gratuidad en todos los tramos de uso de la tarjeta MUGI.*
- *Avanzar en la misión social del modelo tarifario del sistema MUGI, con la inclusión de nuevos colectivos especialmente vulnerables.*
- *El Ayuntamiento de Astigarraga insta a la ATTG a ampliar su oferta de transporte tanto como sea preciso para atender las demandas de todos los usuarios y usuarias, y de forma particular en el caso de Astigarraga, municipio que cuenta con un servcio público de transporte muy deficiente.*
- *Siendo conscientes de que todo esto puede suponer un incremento en los costes del sistema tarifario del transporte público de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Astigarraga insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que revierta parte de lo recaudado en los tramos sujetos a peaje de la Red Foral de Carreteras y active la Disposición Adicional Segunda de la la Norma Foral 1/2011 de 29 de marzo incorporada en el título séptimo y de su Decreto de desarrollo, con el objetivo de fomentar el transporte público.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga dará traslado de los acuerdos adoptados a la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa y a todas las instituciones que la componen.*

Ondoren, alkateak azaldu du mugi sistema erreferentea dela hemen zein kanpoan, garraio-sistema publikoa indartu behar dela, eta 2022an tarifen inguruan hausnartu behar dela.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta esan du bi taldeek aurkeztutako testua oso antzekoa zela, eta bere taldeak Euskaditik kanpo ere erreferentea den sistema babesten eta sustatzen duela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa **aho batez onartu** da.

A continuación, el alcalde explica que el sistema Mugi es referente tanto aquí como fuera, que se tiene que fortalecer el sistema público de trasporte, y que durante el 2022 se tiene que reflexionar en torno a las tarifas.

Toma la palabra el concejal Mikel para señalar que el texto presentado por los dos grupos era muy similar, y que su grupo apoya y fomenta un sistema que es referente incluso fuera de Euskadi.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** la moción por **unanimidad**.

## 19.Informazio, galdera eta eskariak.

Autobus zerbitzua dela-eta, Nerea zinegotziak adierazi du Aldundiak erantzun duela Donostiako autobus-zerbitzua Astigarragara luzatzeko aukeraren inguruan, eta horren aurrean udalaren jarrera zein izango den galdetu du.

Alkateak azaldu dio Donostiako Udalarekin harremanetan daudela, eta lehen urratsa dela aukera horren azterketa zehatza egitea; eta Aldundiak ere bere hausnarketa egin beharko lukeela, Donostiako autobus zerbitzua Astigarragaraino luzatzeak, B12 zerbitzua egun dagoen bezala zentzurik ez edukitzea ekarriko duelako.

## 19.-Información, ruegos y preguntas.

En cuanto al servicio de autobús, la concejala Nerea señala que la Diputación ha respondido sobre la posibilidad de ampliar el servicio de autobuses de Donostia a Astigarraga y pregunta cuál va a ser la postura del Ayuntamiento.

El alcalde le explica que están en contacto con el Ayuntamiento de Donostia y que el primer paso es hacer un análisis detallado de esta posibilidad, y que la Diputación también debería reflexionar, ya que la ampliación del servicio de autobús de Donostia hasta Astigarraga va a suponer que el servicio B12 no tenga sentido tal y como está en la actualidad.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2022ko martxoaren 29an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria